



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Hondakinen kudeaketa Alkizan argibideak, arauak

2015ko martxoaren 13
(Udalinfo 5.0. gehigarria)

Gogoratu etxean badauzkazuela gida-liburuxkak zer non bota kontsultatzeko, baita webguneetan!!!

AUTO ETA AUZO KONPOSTAGAILUAK

- **Konpostagailuak erabili!** EDUKIONTZIETAN ORGANIKORIK EZ!
Herrian sortzen den hondakinen %40-a aurreztu dezakegu herrian bertan tratatuz.
- Zer bota daiteke konpostagailura?
 - Landare jatorrizko hondakinak: Fruta, fruitu lehorrak, haziak, barazkiak, belarra, loreak eta landare apaingarriak
 - Animalia jatorrizko hondakinak: Haragia, arrautzak, arrautza-oskolak, arraina, mariskoa, hezurak, gazta eta etxeko animalien ilea
 - Sukaldeko papera, ahozapiak eta kartoia, baina bakarrik zikin baldin badaude
 - Ogi-papurak, galletak eta opilak
 - Kafe-hondarrak eta -iragazkiak, baita infusio-hondar eta -poltsak (graparik gabe)
 - Kortxozko tapoiak
- Egituratzailera ekarpen gunean daukazue (Frontoiaren alboan dagoen etxolan).

EDUKIONTZIAK

Hondakinak bereiztu, bakoitzari dagokiona **edukiontzi barruan sartu, poltsa txikitari eta kanpoan edo aldamenean ez utzi!**

Beteta badago ere ez utzi kanpoan, gogoan izan dezakezu ontziak zein astegunetan hustutzen dituzten:

- **Errefusa (berdea):** Astelehenetan.
 - errefusan: berrerabili, birziklatu edo konpostatu **ezin** daitekeena **BAKARRIK!**
 - organikorik EZ, ontzi arinak/plastikoa EZ, papera/ kartoia EZ, beirarik EZ
- **Papera eta kartoia (urdina):** Asteartetan.
 - Kartoizko kaxak eta horrelakoak desegin, zapaldu eta tolestuta sartu.
- **Ontzi arinak (horia):** Ostegunetan.

Zer bota daiteke edukiontzi horira?

- Metalezko edari eta kontserba latak.
- Tetrabrick-ak.
- Edari eta elikagaien plastikozko botilak.
- Etxea garbitzeko produktuen plastikozko botila eta ontziak.
- Poliestireno hedatuzko (porexpana) elikagai-erretiluak.
- Aluminiozko elikagai-erretiluak eta elikagaietarako aluminiozko gainerako materialak.
- Jogurten eta postreen plastikozko ontziak eta haien tapak.
- Beirazko ontzien metalezko tapak eta botilen txapak.
- Hortzetako pastaren tuboak eta kosmetikako plastikozko ontziak.
- Izoztutako elikagaien poltsak eta, oro har, plastikozko poltsa guztiak, baita plastikozko elikagai-filma ere.

BILKETA BEREZIAK

- **Poda edo jardineko inausketa:** Kantitate txikitan bada konpostagailura eta kantitate handietan herriko ekarpen gunean utzi daitezke (Frontoiaren alboan dagoen etxolan).

GAINERAKOAK

- **Tamaina txikiko gauzak:** pilak, bateriak, sukaldeko tresna txikiak, aparatu informatikoak... Herriko ekarpen gunean utzi daitezke (Frontoiaren atzealdean dagoen etxolan). Bakoitzari dagokion kaxan utzi.
- **Material arriskutsuak:** elektro-resna txikiak, CDak, tonerak, pinturak, ... Herriko ekarpen gunean utzi daitezke (Frontoiaren alboan dagoen etxolan). Horretarako dagoen kaxa berezian sartu.
- **Tamaina handiko gauzak:** Hileko **hirugarren ostegunean** jasotzen dira, baina bezperan Mankomunitatera deitu behar da abisua pasatzeko, **943 67 62 16** (10tatik 13tara).

Bestela, **Garbigunera** eraman behar dira:

✓ **Andoain**

Leizotz industriagunea - 20140 Andoain.

Telefonoa: 943 30 38 09

andoingarbigunea@tolosaldea.org

✓ **Tolosa**

San Blas auzoa, 9 bis - 20400 Tolosa.

Telefonoa: 689 41 13 49

sanblasgarbigunea@tolosaldea.org

Garbiguneetako ordutegia:

Astelehenetik ostiralera: 9:00 - 12:30 / 16:00-19:00

Larunbatak: 9:00 - 13:30

Igandeak eta jaiegunak : Itxita

Abuztua: Astelehenetik larunbatera 9:00 - 13:30

LAGUNTZA

Lehenago ere adierazi dugun eran, edozein zalantza izanez gero, Mankomunitatean bertan informazioa bilatu dezakezue: (943 554 874, konpostatu@tolosaldea.org, <http://www.tolosaldea.org>).

Hortaz gain, Alkizan ere Asteazkenero goizez Udaletxean egoten den Alaitz ingurumen teknikariari ere galdetu diezaiokezue edo berarentzat kontsultak utzi (943 690235).

LABURPENA:

Herri bileran herritar batek modu egokian jarri zuen eran: **hondakinen ardura norberak hartu** behar du, Mankomunitateak eta Udalak egin behar dutena da baliabide egokiak jarri jardun hori bideratzeko.

Laburbilduz, honako hau besterik ez dugu egin behar: **BEREIZTU**, **hondakin bakoitzari berea** eman (dagokion tratamendua), eta **arduratsu** jokatu. Horrela 4 “erre” famatuetatik 3 garrantzitsuenak betez: sortzen duguna gutxitu (**Reducir**), ahal duguna ber-erabili (**Reutilizar**), bestea berziklatu (**Reciclar**).